

Apartamentuak adinekoentzat - Betekizunak

Etxebizitza premia

Bizikidetza unitateko pertsona guztiek ez dute etxebizitzarik eduki behar jabetzan, jabetza soilean, azalera eskubidean edo usufruktuan, etxebizitzak kalifikatzen diren egunaren aurreko bi urteetan.

Salbuespenak:

- 1) Azaroaren 30eko 317/2002 Dekretuan ezarritako gutxieneko bizigarritasun baldintzak ez betetzea eta kalifikazio data baino gutxienez bost urte lehenago eskuratua ez izatea.
Teknikari eskudun baten txostenaren arabera eraikuntza soluziorik onartzen ez duten akatsak bakarrik hartuko dira kontuan. Nolanahi ere, Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzetako zerbitzu teknikoek kontraesaneko txostenak egin ahal izango dituzte, eta txosten horiek lotesleak izango dira.
- 2) Banantze edo dibortzio prozesu baten ondoren edo izatezko bikoteak bereizteko prozesu baten ondoren, judizialki beste ezkontidearen familia bizileku gisa esleitua izatea.
- 3) Hipoteka betearazpena egin ondoren, hirugarren mailara arteko odol ahaidetasunezko edo ezkontzazko ahaidetasunik ez duen pertsona bati judizialki edo notarioki esleitua izatea.
- 4) Indarrean dagoen araudian aurreikusitako irisgarritasun baldintzak ez betetzea, etxebizitzaren titularrek 70 urte edo gehiago dituztenean.
- 5) Pertsona bakoitzeko 15 metro koadrotik beherako azalera erabilgarria izatea.
- 6) Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan (hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen) sarbideei eta jasogailuei buruz jasotako zehaztapenak betetzen ez dituen eraikin bateko parte izatea, betiere bertako kideren bat mugikortasun urri iraunkorra duen pertsona desgaitua bada.

→ Aurreko kasuetan aipatzen den etxebizitzaren titulartasuna bateragarria da beste pertsona edo bizikidetza unitate batzuen ohiko bizileku iraunkorra den beste etxebizitza baten edo batzuen jabetza, jabetza soila, azalera eskubidea edo usufruktua % 50etik beherakoa bada, betiere partaidetzen guztizko balioa 75.000 eurotik gorakoa ez bada. **Irakurri Lege testua**

→ **Zuzkidura bizitoki baten esleipendun** diren mugikortasun urriko pertsonen edo 70 urtetik gorakoen kasuan —Donostian jabetzako, azalera jabetzako, usufruktuko edo antzeko etxebizitza baten titular badira, hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruz indarrean dagoen araudian jasotako zehaztapenak betetzen ez dituen eraikin batean—, **euren etxebizitza** Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoari **lagatzeko eskatuko zaie**, gehienez ere 6 hilabeteko epean, Erakundean etxebizitza eskatzen dutenei apartamentua errentan ematen zaienetik zenbatzen hasita.